

USVreact

UNIVERSITIES SUPPORTING VICTIMS OF
SEXUAL VIOLENCE

INDARKERIA SEXUALEN TIRADERA IREKIZ USVreact proiektuaren ebaluazio lokala eta formakuntzak

Marta Luxán Serrano, Jokin Azpiazu Carballo eta Mila Amurrio Velez



CEPS Projectes Socials
Barcelona

US
University of Sussex
Centre for Gender Studies

UNIVERSITAT
ROVIRA I VIRGILI

Universidad
del País Vasco
Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIVERSITÀ
DEGLI STUDI
DI TORINO
ALMA MATER
TORINENSIS

ΠΑΝΕΠΙΣΤΗΜΙΟ
ΠΑΤΕΡΑΣ

UNIVERSITY
of York



Co-funded by the Rights,
Equality and Citizenship
Programme of the European Union

Material hau Europar Batasunaren Eskubide, berdintasun eta hiritartasun programaren laguntzaz ekoiztu da. Materialaren edukiak, ordea, beraien egileen ardura dira eta ezin dira inolara ere Europar Komisioren iritzia ordezkarizat hartu. USVreact proiektuaren kodea: JUST/2014/RDAP/AG/VICT/7401

CC Creative Commons Atribución-NoComercial-Compartir igual 3.0 lizentziarekin argitaratua
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/>

Lehen argitalpena: 2018ko otsaila

Oharra: txosten honen edukiak azkenengoz bere publikazioaren unean eguneratu dira (2018ko otsailean). Bertan azaltzen diren informazioetako batzuk agian jada ez dira erabat zuzenak txostena irakurtzen duzun unean. Erabili aurretik informazioa eguneratuta dagoela ziurtatzera animatzen zaitugu.



Co-funded by the Rights,
Equality and Citizenship
Programme of the European Union

Material hau Europar Batasunaren Eskubide, berdintasun eta Hiritartasun programaren laguntzaz ekoiztu da. Materialaren edukiak, ordea, beraien egileen ardura dira eta ezin dira inolara ere Europar Komisioaren iritzia ordezkaritzat hartu. USVreact proiektuaren kodea: JUST/2014/RDAP/AG/VICT/7401

Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) parte hartu duten kideak:

Kordinatzailea: Marta Luxán Serrano

Ikerlariak: Jokin Azpiazu Carballo, Mila Amurrio Velez

Formatzaileak: Jokin Azpiazu Carballo, Ainhoa Narbaiza Irizar

www.ehu.eus

Kide elkartu bezala lagundu gaituzte prozesu osoan:

Nafarroako Unibertsitate Publikoa - Universidad Pública de Navarra

Izaskun Andueza

Patricia Amigot Leache

Idoya Aranaz Hernández

www.unavarra.es

Mondragon Unibertsitatea, HUHEZI fakultate

Amelia Barquín

www.mondragon.edu

Eskerrak eman nahi dizkiogu parte hartu duten unibertsitateetan gure lana erraztu duten pertsoneri, eta nola edo hala lagundu gaituztenei. Euskal Herriko Unibertsitateko Berdintasunerako Zuzendaritzari, NUPeko Berdintasun Unitateari, gure formazio ereduak beraien ekarpenekin hobetzen lagundu gaituzten talde eta aktibista feminista eta LGTBIQ guztiei. Nola ez, eskerrak eman nahi dizkiegu proiektuan gurekin egon diren beste herrialdeetako lagun guztiei, bereziki URVkoiei gurekin elkarlan estuan aritzeagatik formazioen diseinu eta ebaluazioan

Indarkeria sexualen tiradera irekiz: USV react proiektuaren ebaluazio lokala eta formakuntzak

Marta Luxán Serrano, Jokin Azpiazu Carballo, Mila Amurrio Velez

(Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU)

SARRERA

2016ko martxo eta 2018ko otsaila artean garatu dugun europar proiektua da “Universities Supporting Victims of Sexual Violence” (euskaraz “Indarkeria sexualak jasan dituzten biktimak babesten dituzten unibertsitateak”, USVreact-en akronimoa). Bere helburu nagusia izan da tresnak garatzea, bereziki, formakuntzara bideratutako tresnak, unibertsitateak unibertsitate-eremuaren baitako indarkeria sexualen errealitatera gerturatu daitezzen, horiek prebenitze eta, gertatuz gero, ahalik eta egokien erantzute aldera.

Tarragonako Rovira i Virgili (URV) unibertsitatearekin batera egindako formakuntza-eredua izan da Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) proiektuaren erdigunea. Dena den, garrantzia bereko beste zenbait zeregini ere ekin diogu: esaterako, esplorazio-diagnostikoa osatu dugu, gure unibertsitateko ikasleek indarkeria sexualekiko duten pertzepzio eta eragina ardatz hartuta; EHUren genero indarkerien aurkako protokoloaren elaborazio prozesuan parte hartu dugu; edota unibertsitate barneko zein kanpoko eragile feministen arteko lan zein hartu-eman sareak ezarri ditugu.

URVko lankideekin elkarlanean, lehen formakuntza-eredua sortu genuen, ikuspegi eta kezka komunak biltzen zituena; egoerek eta testuinguruak hala eskatuta, inplementatzen joan garen heinean, lehen proposamen hori moldatzen eta hobetzen joan gara. Horren erakusgarri da URVko formakuntza-unitateak hamar ordukoak zirela eta EHUkoak, berriz, zortzikoak; desberdintasun horrek eragina izan du jardueren egituraren eta iraupenean. Halaber, ikastaroak martxan jartzeak ahalbidetu digu jarduerak, erabilitako adibideak... aztertzea, aldatzea eta aberastea. Hortaz, proposamen komun gisa jaio zen formakuntzatik bi ikastaro sortu dira; komunean asko badute ere, desberdinak dira, nola edukien aldetik hala gaira hurbiltzeko moduaren aldetik ere. Bi proposamenak argitaratu ditugu duela gutxi sarean eta paperean, gida gisa. Aipatutako materialen ibilbidea adibide egokitzat jotzen dugu; izan ere, argi erakusten dute nola egokitzen diren indarkeria sexualei eta beste hainbat indarkeria matxista/heteropatriarkalei buruzko formakuntza eta sentsibilizazio ekimenak inplementatu nahi diren ingurune konkretuetara.

EHUren kasuan, formakuntza inplementatzeak bi ondorio izan ditu: batetik, irakasleriari eta Administrazio eta Zerbitzuen Pertsonalari (AZP) zuzendutako formakuntza-programaren 2017ko edizioan txertatzea; bestetik, adituekin formakuntza pilotuak zein fakultate zehatz batzuetan ardatzutako ikastaroak egitea. Guztira 149 pertsonak hartu dute parte zortzi orduko iraupena duten formakuntza saioetan eta beste hogeit hamar inguru bertaratu dira (proiektuaren amaiera datara arte) ereduaren aurkezpen laburragoetara. 149 horien artean daude Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) eta HUHEZIKo (MU) hogeit hamar pertsona, unibertsitate horiekin elkarlanean aritu baikara proiektu guztian zehar. Eredua gida moduan plazaratu ostean, biek adierazi dute formakuntza eskaintzen jarraitzeko asmoa.

USV proiektuaren hasieran, helburu esplizituak eta aurreikusteko modukoak zehazterako orduan, agertu ez ziren eta indarkeria sexuarekin harremana duten zenbait konturi heldu diogu lantaldeko kideek. Uste dugu gure inguruan sortu diren mugimendu eta aukeren aurrean adi egoteak ahalbidetu egin digula horien eragina hobetzea eta hori proiektuaren bukaera ofizialarekin amaitzen ez den zeregina dugu. Garrantzitsua iruditzen zaigu kontuan izatea unibertsitate-egituraren baitako aldaketa sakonez hitz egiten dugunean epe ertain eta luzera begirako prozesuei egiten diegula erreferentzia. Txosten honetan bildu ditugu USVreact-etik atera ditugun zenbait ondorio, 24 hilabetetan zehar izan ditugun zalantza eta dilema berri ematen dugu, eta, katedra finkatzeko asmorik gabe, unibertsitate-eremuaren baitan jazotzen diren indarkeria sexualen prebentzio eta erantzunetan pentsatzen eta lan egiten jarraitzeko hainbat gomendio proposatu ditugu.

TESTUINGURUA

Proiektu oro garatzen da testuinguru baten baitan; testuinguru horrek zehazten ditu, neurri batean, proiektuaren ikuspegia eta haren garapena. Jarraian ageri diren elementuek laguntzen dute ikerketa-akzio honi heltzeko zein garatzeko modua kokatzen.

Indarkeria sexuarekiko eta horien ikusgarritasunarekiko interesa

Beharbada, hori izan daiteke azken urteetan zehar aldaketa gehien jasan dituen elementua. Iritzi publikoa oso aldakorra da. Agenda mediatikoa oso ziklo motzetan aldatzen da eta sare sozial digitalak edota beste plataforma batzuk baliatuta zenbait elementu mahai gainean jartzeko gizarteko sektore batzuek duten gaitasuna, aldizka, oso garrantzitsua da. Gure kasuan, ikusi dugu nola azpimarratu nahi genituen zenbait elementu ikusgarritasuna lortu duten azken hilabeteetan, geroz eta handiagoa izan den intentsitatearekin. Indarkeria sexuarekiko (sexu-jazarpenarekiko, zehazki) arretak goia jo zuen sare sozialetan #metoo kanpainaren eztabairarekin bat. Zinemagintzako eta beste arte eszeniko batzuetako profesionalen bultzada izan zuen kanpainak; hori horrela, emakumeen aurkako jazarpenak ikusgarritasun handia izan zuen (baita gizonezkoek beste gizonezko batzuen eskutik pairatutako jazarpen kasu batzuek ere). Gure proiektua ez da gai horren inguruan sortu den eztabairatik eta agerrarazi dituen eztabairagaitatik at egon: posible al da indarkeria sexualak salatzerako orduan erdigunean botere-harremanak kokatzea eta ez subjektu zehatzen jarrera? Zer irabaz dezakegu eta zer galdu ikusgarritasuna gizarteko sektore oso erreferentzial, boteretsu eta zentralen eskutik doanean, aipatutako emakumezko aktoreak, kasu?

Kualitatiboki mugimendu horrek adina garrantzia, edo gehiago, izan du, gure ustez, "nik sinesten dizut" kanpainak. Hein handi batean, 2016.urteko San Ferminetan emakume bat sexualki erasotu zuten gizonen aurkako epaiketaren eragin sozialak bultzatuta, sare sozialetan presentzia handia izan baitzuen. "La manada"-ren aurkako epaiketak agerian utzi zuen jazarpen edo eraso sexualen epaiketa publiko orok pribatuaren eta publikoaren arteko mugaren birnegoziazioa dakarrela; non, orokorrean, emakumeek

negoziatzeko gaitasuna galtzen duten (beraien bizitzako xehetasunak gertakari publiko bilakatzen dira eta biktimaren aurkako epaiketa soziala osatzen dute) eta gizonezkoek beraien pribilegioak erabiltzen dituzten eremu pribatuan mantentzeko (aipatutako kasuan, ezagunak dira erasotzaileen aurpegiak ez erakusteko eskaerak, biktimaren argazkiak biral egin eta egun batzuetara). Testuinguru horretan, "nik sinesten dizut" kanpaina kualitatiboki garrantzitsua da errugabetasun-presuntzioaren zuzenbide-markoa gaingiduzten duelako eta erasotuak izan diren emakumeen testigantzari balioa ematen diolako. Begien bistakoa da, oso maiz, indarkeria sexualen inguruan emakumeek dituzten bizipenak isilarazi egiten direla edo horien entzutea belzten dela, gertakariak frogatzeko eskaera faltsupean. Oso eztabaidagarria da elementu hori; izan ere, aski ezagunak diren arren, inguru horretan gertaera asko ezin dira ofizialki frogatu.

Unibertsitate eremuaren baitan jazotzen diren indarkeria sexualak ere, horietako batzuk, behintzat, ikusgarri egin dira proiektua garatzen joan den heinean. Azken bi urteetan zehar hainbat unibertsitatek ekin diote jazarpenaren aurkako protokoloak eratzeko prozesuari. Horietako batzuek indarkeria matxistaren aurkako protokolo zabalagoak landu dituzte; alde aurretik protokolo eta erregulazioak zituztenek horiek moldatzeko prozesuak jarri dituzte martxan (EHU da horren adibide), mekanismoak martxan jartzerako orduan hautemandako mugek bultzatuta. Horietako batzuen berri zabaldu dute hedabideek eta gaiaren inguruko gizarte-eztabaida sortzen hasi da.

Pentsa genezake testuinguru horren baitan ekarpen guztiak direla positiboak. Baina, ikusgarritasunaren efektuei dagokionean, Greziako, Erresuma Batuko eta Italiako kideekin izan ditugun eztabaidek zuhur jokatzea behartzen gaituzte. Ez da gure xedea kanpaina horien asmoak zalantzan jartzea; berekin dituzten arriskuen kontziente izan behar garela azpimarratu nahi dugu: indarkeria modu batzuei ikusgarritasuna ematen zaie eta beste batzuei ez, gaingiduzteko zailak diren biktimizazio-estandarrak eraikitzen dira eta, bereziki arriskutsua dena, alarma soziala sor daiteke. Horrek dakar, orokorrean, instituzioen artean (gure kasuan unibertsitateen artean) alarma desaktibatzeke nahia piztea; horretarako, neurri zehatz eta zuzenak baliatzen dituzte eta, gehienetan, zigor-neurriak (zigorrek gogortzea) ezartzera eta pertsona jakin batzuk indarkerien errudun bakartzat seinalatzera mugatzen dira (konplizitate sozial, instituzional eta kulturaletan sakondu gabe).

Hori guztia kontuan izanik, aukera gisa bizi izan dugu indarkeria sexualen ikusgarritasunaren handipena; baina, baita zuhurtziaz eta seriotasunez lantzeko elementu legez ere. Hala, parte-hartzaileen artean indarkeria sexual mota desberdinak behatzeko eta identifikatzeko erraztasun geroz eta handiagoa hautematen dute formatzaileen behaketa egunkariak. Era berean, erresistentzia hautematen dute indarkeria horiek botere-egitura baten adierazpen moduan identifikatzerako orduan. Esate baterako, analisisen indibidualizazioa eta erlatibizazioa dakar horrek ("gizon guztiak ez dira berdinak", "emakumeek ere erasotzen dute", "pertsonaren arabera da").

Indarkerien markoa hedatzen ari da

Etengabeko eztabaidan murgilduta dago indarkeria sexualen ulermen-markoa; hala gertatzen da ordena heteropatriarkaletik eta bere betikotzeko nahitik eratorritako indarkeriekin ere. Noranzko anitzetan eta presio-ardatz ugarien artean garatzen da eztabaida hori. Estatu espainiarrean indarkeria-egoeren egiturazko izaera ikusezina da gehienetan. Oraindik ere etengabe defendatu beharreko egia da indarkeriak dimentsio ugarian (ekonomia, kultura, politika, epistemologia...) ageri diren botere genero-sistemen adierazpena direla. Hortaz, sen onaren espazioan jazotzen da lehen eztabaida. Haatik, ugariak dira irekita dauden gatazkak: esaterako, egitura-marko horien ulermenari buruzkoak edota politiken, ekimenen eta proposamenen bidez praktikara eramateko moduari buruzkoak. USVreacten garapenean zehar hainbat noranzkotan hedatu da eztabaida hori.

Lege organikoak indarrean hamabi urte daramatzan honetan, sarritan, urria iruditzen zaigu genero indarkeriaren ulermen-markoa. Proiektu honi ekin genion unean euskal mugimendu feministaren ordezkariak "indarkeria matxista kontzeptuaren birdefinizioa" aldarrikatu zuten eusko legebiltzarrean. Legearen itzala luzea da oraindik eta bere mugak erabakigarriak dira indarkeria bikote edo bikote ohi heterosexualaren markoaren baitan kokatzerako orduan. Hedapen premia horrek eskatzen du bizitza sozialeko esparru guztietan dagoen genero-egitura eta indarkeria sortzeko duen gaitasuna aintzakotzat hartzea. Gure testuinguruan kokatuta, adibidez, EHUren protokoloa berridazteko prozesuaren helburuetako bat da legeak finkatutako markoa gainditzea, hartan oinarritzen baita aurreko testu arautzailea.

Halaber, bi behar nabarmendu nahiko genituzke: batetik, indarkeria matxisten zuzenbide-ikuspegia hobetzeko beharra; bestetik, indarkeria hauteman eta horren aurka jarduterako orduan zentralitatea alde batera uzteko beharra. Hainbat konturen bitartez egiazta dezakegu esandakoa: indarkeria sexualak gertakari puntual gisa ulertzen ditugu oraindik, hasiera eta amaiera duten gertakari moduan, alegia; hala, une eta leku jakin batean gertatzen dira, eta, beraz, frogatu eta leporatu daitezke. Ikuspegi horren eta errealitatearen arteko kontraesana agerikoa da; asko dira frogatu ezin diren jazarpen kasuak, esate baterako, ezinezkoa da opakutasun handiko espazioetan, polizia-etxeetan, espetxeetan, instituzio mentaletan... kasu, jazotzen diren indarkeria sexualak frogatzea. Horrek esan nahi du ez direla gertatu? Eta, batez ere, gertaerak frogatu beharrak ez al digu galarazten jardutea? Salaketa ofiziala jarri duten edo gertaerak frogatu diren alde batera utzita, indarkeria sexualak jasaten dituzten pertsonen babes eta akonpainamendu neurriak aurkitzeko beharra agerian jarri da babes eta salaketa neurri bereziak sortzerako orduan, adibidez, NUPk 2017. urtean estreinatu zuen protokoloan.

Azkenik, LGTBQI aktibismo-sektore batzuek bidea eman diote indarkerien inguruko begiradak handitzeko beharrari; LGTBQI politikak genero politikengandik guztiz bananduta ez proposatzeko premia seinalatu dute. Genero identitate ez normatiboen inguruko kezkek, azken bi edo hiru urtetan ezusteko ikusgarritasun kotak erdietsi dituztenek, intentsitate handiz jarri dute mahai gainean gai hori: hitz egin dezakegu generoarekin loturiko indarkeriez binarismoa edo derrigorrezko heterosexualitatea kontuan izan gabe? Gure proiektuak saiakera egin du pentsamendu eta ekintza feminista LGTBI eta queer politikekin uztartzeko. Hala eta guztiz ere, marko horiek politika konkretu bilakatzea ez da erraza. Azken bi urteetan zehar eztabaida ugariaren lekuko izan gara; sexu- eta afektibitate-aniztasuna lantzerako orduan emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna lantzeko erabiltzen diren espazio, baliabide eta ikuspegi berak erabiltzeko egokitasuna izan dute ardatz eztabaida horiek. Eztabaidak zabalik jarraitzen du eta hala jarraituko duela aurreikusten dugu, unibertsitateak sentsibilizazio-estrategia eta erregulazio berriak txertatzen joan ahala.

Gure unibertsitatea eta bere ingurua

Ezin dugu alboratu eztabaida koiunturalekin bat gure unibertsitateetako egitura formalekin lotura duten baldintzatzaileak ere badaudela. Unibertsitate handi samarra da EHU. Euskal Autonomi Erkidegoko unibertsitate publiko bakarra da eta ez du presentziarik gainerako euskal geografian (Nafarroan, berezko estatutupean, NUP dago eta frantziar administraziopean dauden probintzietan beste unibertsitate batzuk daude). 50.000 ikasle eta 5.000 langile inguru ditu EHUk. Unibertsitatea dimentsionatzeak ahalbidetzen digu haren baitan dauden politiken konplexutasuna ulertzea eta, seguruenik, etorkizunean indarkeria sexualak ikuspegi atomizatuago (fakultate edo departamentu zehatzetan) batetik lantzeko beharra entenditzea.

2006. urteaz geroztik Berdintasunerako Zuzendaritza dauka unibertsitateak; bi berdintasun plan egin ditu dagoeneko eta, une honetan, hirugarrena amaitzeko bidean dago. Agerikoa da berdintasun egituraren baliabideak mugatuak direla (liberazio erdi duen arduradun bat eta bi teknikari 55.000

pertsonentzat) eta, hala ere, oso testuinguru-elementu garrantzitsua dela ondorioztatu dugu. Ezinbestekoa iruditzen zaigu instituzioaren informazioa eta datuak zentralizatuko dituen, eta elkarteek, ikerketa taldeek, proiektuek edo departamentuek bultzatuta sor daitezkeen ekimenei babesa emango dien egitura bat edukitzea; aldea nabarmena izan daiteke. Izan ere, unibertsitate eremuaren baitan indarkeria sexualen gaia lantzerako orduan, horrelako egiturak egotean (edo ez egotean) egon daiteke gakoa.

Gaiz aldatuz, ez daukagu gure unibertsitateko indarkeria sexualen intzidentziari buruzko datu zehatzik. Ez da EHUen soilik gertatzen den zerbait; estatuko indarkeria sexualei dagokionez ere, ez daukagu ondo landutako datu sistematikorik (orain dela gutxira arte, jarritako salaketa kopuruan oinarritzen ziren datuak, baina ez dute islatzen nola ebatzi diren salaketa horiek). Orokorrean, horri buruzko jarrera eta balioztapenetan oinarritzen dira estatuko unibertsitateetan egin diren ikerketak eta, ia beti, emakumezkoetan ardazten dira, biktimizazioan funtsatutako ikuspegia lagun. Oso gutxi dira jarrera maskulinoak aztertzen dituzten ikerketak.

Datuen gabezia gailentzen den testuinguru horretan inplementatu genuen esplorazio-inkesta bat; sarean eta paperean galdetegi bat zabaldu genuen eta 715 baliozko erantzun eskuratu genituen. Ez dugu egingo haren analisi xehatua, baina nabarmendu nahiko genuke ondorio batzuk elaboratu ditugula azaleko galdetegi mugatu horren bitartez. Hala, baieztatu dezakegu indarkeria modu batzuk oso erraz identifikatzen eta gaitzesten direla ("bere borondatearen aurka norbait harreman sexualak izatera behartzea"), baina beste batzuk, aldiz, gehiago erlatibizatzen direla ("norbaiti eduki sexuala duten irudiak bidaltzea alde aurretik horri buruz hitz egin gabe"), gure gizartean etengabe garatzen ari den marko indibidualizatzailearen ondorioz, ziur asko.

Horrez gain, ohartu gara, inkesta egin diegun ikasleen artean, gehiengoak (%94) ez duela EHUren protokoloa ezagutzen; soilik %3k jakingo luke hura martxan jartzen. Azkenik, ikasi dugu, indarkeriek gure inguruan zein eragin duten neurtu nahi badugu, berriz hausnartu behar dugula galderak egiteko moduaren inguruan. Jazarpenarekin eta erasoekin lotutako jokaeren zerrenda egin genuen galdetegian. Laginari galdetu genion ea "noizbait gertatu zaion horrelakorik"; baiezkoa nagusiagoa izan zen gizonzkoen artean emakumezkoen artean baino. Horrek bi gauza adieraz ditzake: batetik, EHUk joera nagusia alderantzikatzen duela eta, bestetik, "noizbait" horrelako jokaerarik pairatu izan duzun galdetzeak izugarri altxatzen dituela erantzunak. Uste dugu erantzunak oso desberdinak izango liratekeela galdetuko bagenu jokaera horiek beraien bizitzan izan duten eraginaz; ez baita gauza bera galdetzea ea "noizbait ukitu zaituzten zure baimenik gabe" edo galdetzea ea "pentsatu duzun leku batera joateari uztea zure baimenik gabe ukitu ez zaitzaten".

Hausnarketa bat izan dugu bidelagun proiektuaren garapenean zehar: diagnostikoak egiteko beharrak presentzia handia dauka unibertsitatean. Kezka hori antzeman dugu formakuntzan zein eztabaida edota aurkezpen saioetan (proiektuaren eta EHUren protokolo berriaren markoaren baitan) parte hartu duten askoren artean. Indarkeria sexualen inguruko datuak eskuratzeko nahiaren atzean indarkeria sexuala gertatzen dela egiaztatze beharra egoteak, prebentziorako neurriak hartzeko premia beharrean, ardua sortzen du gudan. Aurretik esandako guztia kontuan izanik, frogatu beharreko hipotesi gisa landu beharrean, indarkeria sexual ezberdinen presentzia abiapuntutzat jo behar dela deritzogu. Gertakariak frogatzeko zailtasuna erakusten duten ikerketak ugariak dira; hori dela eta, ezin gara datu kuantitatibo esanguratsuak eskuratzeko zain egon prebentzio eta jokabide neurriak martxan jartzeko.

FORMAKUNTZA ETA HAREN EBALUAZIOA

Aurrez adierazi dugun moduan, zortzi ordukoa izan da formakuntza; lau orduko bi saiotan banatu dugu. Ondorengoak dira programaren helburuak: kontzientziazioa handitzea, gure testuinguruetan jazotzen diren indarkeria sexualaren adierazpen desberdinak identifikatzen eta ulertzen laguntzea, eta arazoaren prebentzio zein erantzunaren inguruan hausnartzeko eta erantzukizunez jokatzeko tresna praktikoak eskaintzea. Gaiaren arabera, lau ardatz nagusitan banatu genuen formakuntza eta edukia gehitu genion bakoitzari:

- Lehen zatiaren xedea da unibertsitate eremuaren baitan indarkeria sexuala nola hauteman eta identifikatzen den ezagutzea. Fikziozko gertakariak erabiltzen ditugu eztabaidarako eta talde-hausnarketarako abiapuntu gisa. Jarraian, eztabaida gidatua egiten dugu; arreta berezia eskaintzen diegu aztertutako kasuetan ageri diren botere-elementuei.
- Bigarren zatian indarkeria sexuala ulertzen, kokatzen eta definitzen saiatzen gara. Lehen ataleko eztabaiden ostean, indarkeria sexualetan hauteman daitezkeen egiturazko elementuen analisisan sakontzen dugu, baita horien arteko interakzioan ere. Interseksionalitatea, generoa, sexu-identitatea eta genero adierazpena moduko kontzeptuak aurkezten ditugu, mintzaira ulergarria erabilia, eta lehen zatiko kasu eta eztabaidetan oinarrituta.
- Unibertsitatearen baitako indarkeria sexualari ematen zaion erantzunari heltzen diogu hirugarren zatian. Pertzepzioa, entzutea, zaintza, akonpainamendua eta ebaluazioa barne-hartuko dituen erantzuna sustatzea du helburu nagusi. Besteak beste, antzerki-foroko eta entzute aktiboko teknikak erabiltzen ditugu.
- Unibertsitatean eraso sexualen bat jasan duten pertsoneri erantzun/arreta egokia emateko tresna, zerbitzu eta estrategiak eskaintzen ditugu laugarren zatian.

Dokumentuan zehar aipatu ditugun zenbait testuinguru-auziari erantzutea izan du helburu formakuntzaren ikuspegiak. Unibertsitatearen baitan gutxi landu den gaia izanik, gure asmoa ez da izan indarkeria sexualak kudeatzera bideratutako eta erabilera automatikoko tresnak eskaintzea; horren ordez, norberak bere burua eta ingurua zalantzan jartzeko espazioa eskainiko duen formakuntza proposatu dugu. Horretarako, ezagutzaren transmisio hutsetik haratago doazen parte-hartze metodologiak erabili ditugu: besteak beste, talde-eztabaidak, antzerki-foroa, egoeren ebazpena. Unibertsitateen kudeaketa erduetatik urruntzen den ideia nagusi bat transmititzeko saiakera egin dugu: egoera bakoitzaren aurrean beharrezkoa da sakon analizatzea eta pentsatzea, komunitateetan aldaketak eragin ditzaketen neurriak proposatzea, eta biktimizazioa baztertu eta ahalduntzea sustatuko duten prozesuak ezartzea.

Formakuntzen oinarri gisa erabili genituen materialak egiaztatu eta berrikusi zituzten aditu edota aktibistek, bai Euskal Herrian eta baita Katalunian ere. Horri dagokionez, hiru lan-saio ireki eta hainbat elkarrizketa partikular egin genituen gure lurraldean, gure ikuspegia eta mugimendu feministen zein beste instituzio batzuen planteamenduak bat zetozen egiaztatze aldera. Izan ere, unibertsitate eremuaren eta beste espazio batzuen arteko elkarlana ezinbestekotzat jotzen dugu indarkeria sexualen eta beste indarkeria matxista batzuen inguruko ekimenak inplementatu ahal izateko.

Formakuntza-ereduan aldaketak

Material horiek, ikastaroaren egiturarekin bat, aldatzen joan ziren saioak eta formakuntzaren edizioak egiten joan ginen heinean. Adibidez, ikastaroaren lehen atala (non fikziozko kasuak lantzen ditugun, indarkeriaren ezaugarriak analizatzeko asmoz) bigarrena zen hasieran, sarrera teoriko eta terminologiko batekin ematen baikenion hasiera. Berehala ohartu ginen ikastaroari kasu zehatzetatik ekiteak modu intentsoago batean kokatzen zuela jendea lantzen ari ginen gaian; horrez gain, hasieratik taldeetan lan egiteko aukera eskaintzen zigun. Jardueraren abiapuntua fikziozko egoerak baziren ere, parte-hartzaile gehienek gerta zitezkeen egoera gisa bizi zituzten, ezagunak egiten zitzaizkien. Bestalde, egiturarekin loturiko auziak agertzen joan ziren pixkanaka-pixkanaka talde-lanetan, guk edota parte-hartzaileek egindako galderen bitartez: "Gauza bera gertatuko litzazuke gizonezkoa izango bazina?", "zein zerikusi dute lan-posizio ezegonkorrak eta erasoen aurrean erantzuteko moduak?", "harreman heterosexuala izango balitz, errazagoa edo zailagoa izango litzateke hortaz hitz egitea?", eta abar.

Bigarren blokean egiten genuen horri buruzko irakurketa artikulatuagoa: gizarte egiturei, botereari, interseksionalitateari, matxismoari, genero arauari, arrazismoari... buruz hitz egin genuen. Momentu horretan agertu ziren parte-hartzaileen erresistentziak gure planteamenduen aurrean. Parte-hartzaileen oharrek hainbat gai uzten dituzte agerian. Batetik, borondatea eta ardua indibiduala gizarte baldintzatzaileengandik banatzeko zailtasuna. Zenbait kasutan, botere posizioekin identifikatzea nahi ez zuten gizonezkoek adierazi zuten erresistentzia; beste batzuetan, aldiz, beraien burua biktimizat aitortu nahi ez zuten emakumeek. Horrelako erresistentziak ohikoak dira unibertsitatean, non meritokrazia nagusitzen den. Izan ere, behin eta berriz egoerak erlatibizatzeak ("emakumeek ere egin dezakegu hori") agerian uzten du emakumeak eta LGTBQI pertsonak biktima huts gisa aurkezten dituzten politikekiko deserosotasuna; aldi berean, indarkeriak egiturazkoak direla zalantzan jartzen duen erlatibizazio legeaz aurkezten da. Askotan, datuek eta pertzepzioek kontra egiten diete teorizazioei, totalizatzailetzat jotzen dira-eta. Hala, nahiz eta parte-hartzaile gehienek onartzen zuten indarkeria sexualak bereziki emakumei eta subjektu ez normatiboek zuzenduta daudela, teorikoki artikulatzean, analisiaren baitan erlatibizazio arrakala irekitzeko beharra agertzen zen.

Bestalde, hizkerari ere garrantzitsua deritzogu. "Feminismoa" bezalako hitzen onarpenean aurrerapausoak eman badira ere, erresistentzia apur bat nabaritzen dugu oraindik, totalizatzailetzat edota erradikaltzat jotzen baitituzte. Horrelako egoeren aurrean, beste espazio sozial batzuetan ere oso presente dagoen eztabaida garatzen uztea erabaki zuten formatzaileek; eztabaida horrek islatzen du unibertsitate espaziotan feminismoa gai kontingentea dela oraindik. Hori guztia kontuan izanik, egokiagoa iruditu zitzaigun bloke hori bigarren lekuan lantzea. Ondorengo izan zen gure hausnarketa: "Ulermen marko feminista eta queer-arekiko erresistentziak kudeatu behar baditugu, egin dezagun denboraldi baten elkarrekin lanean igaro ostean, elkarri entzun nahi izateko gutxieneko lotura bat sortu ostean".

Planteamendu batzuekiko erresistentziak sortzeak ez du adierazten horiek orokorrak zirenik, ezta emankorrak ez zirenik ere. Zentzu horretan, eztabaidan ardatzen diren formakuntza espazioak eskaintzeak ahalbidetzen du zalantzak eta desadostasunak azalratzea, ezagutzen transmisio hutsean oinarritzen diren beste eredu batzuen aldean, non ustezko kontsentsuak ager daitezkeen desadostasunak ezkututzen dituen. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu indarkerien inguruko kontsentsu samur eta bakunak gaituztea; horrek erraztuko baitu indarkeriek boterearekin duten harremanari buruz egiazko eztabaida sakonari ekitea. Erresistentzia eta tira-birak prozesu horren parte direla uste dugu.

Parte- hartzaileen balorazioak

Ikastaroaren balorazio orokorra oso positiboa izan da; hala ondorioztatu dugu parte-hartzaileek modu anonimoan bete dituzten onlineko galdetegiaren analisi deskriptiboaren ostean. 1etik 5era doan eskalan (non 1 eskasa den eta 5 bikaina) parte-hartzaileen batzuei beste balorazioa 4,3 izan da. Laginaren %47k hautatu du "bikain" eta %95,2k 3 puntu baino gehiago eman dizkio ikastaroari. Generoa eta adskribatuta dauden talde profesionala (irakasleria edo AZP) hartu genituen aldagai gisa, baina erantzunak gutxi aldatzen dira. Azken alderdi hori esanguratsua iruditzen zaigu; izan ere, zaila da aldebereko formakuntza eskaintzea interes eta behar ezberdinak dituzten lan-taldeei. Parte-hartzaileen %94k uste du unibertsitateko beste pertsona batzuei ere eskaini beharko geniekeela ikastaroa eta %89k adierazi du parte hartuko lukeela balizko jarraipen-ikastaro baten.

Parte-hartzaileen itzaropenak balioztatzeko galdera-sail bat gehitu genuen; ikastaroarekiko zituzten itzaropenak zein mailatan bete ziren adierazteko eskatu genien (1etik 5erako eskala batean, non 1ak inola ere adierazten duen eta 5ak guztiz). Antza denez, generoak eragina zuen kasu horretan: bere burua emakume gisa identifikatzen zutenen artean inork ez zuen 3tik beherako puntuaziorik eman. Horien artean, irakasleena da asetuen dagoen kategoria, %45k adierazi zuen bere itzaropenak guztiz bete dituela. Gizon bezala identifikatu ziren irakasleen artean, balioa baxuagoa da (%23) eta 1etik gertu dauden erantzunak ageri dira.

Ikastaroaren hainbat alderdik izan zuten 4tik gorako puntuazioa ("formazioa eman zuten pertsonen inplikazioa", "ikastaroko giroa", "formazioa egin genuen espazioa", eta "ikastaroko materialak"); lehenengo hirurek izan zuten baloraziorik onena (4,7; 4,5; 4,5). "Ikastaroaren iraupenak" izan zuten baloraziorik baxuena, 3,4 punturekin. Nabarmendu nahiko genuke, orokorrean, formakuntzaren iraupena luzatzea eskatzen zutela parte-hartzaileek.

Aurrez deskribatu ditugun ikastaroaren blokeak ere ebaluatu zituzten. Lehen hiru blokeek balorazio negatibo gutxi izan zituzten (%2, %4, %7), baina deigarria da datuen goranzko ordena, ziurrenik, itzaropenen betetzea edo ez betetzea dela eta. Laugarren blokearen inguruko iritzi txarra, aldiz, %26koa da. Zenbait elementuri esker uler dezakegu kopuru hori. Alde batetik, itzaropenak betetzeko zailtasunak zituen blokerik bazegoen, hori laugarrena zen: protokolo baliagarririk ez duen unibertsitate bati prebentzio eta akzio baliabideak eman nahi izan dizkio-eta. Geroko galdetegiaz gain, parte-hartzaileen motibazioak esploratu genituen; horretarako, hasieran egin genuen dinamika baten bitartez, "zerk ekarri zaitu hona?" eta "zerk kezkatzen zaitu bereziki?" galdetu genien. Ugariak ziren indarkeria sexual kasu bat ezagutuz edo ikusiz gero zer egin zezaketen jakiteko informazio zehatza eskatzen zuten ahotsak. Indarkeria sexuala "arriskuaren eta ondorioen gestiora" hurbiltzeari erantzuten dio neurri eta jarduera protokolo zehatzen beharrak; arrazoi ezberdinak zirela medio, formakuntzan ez genuen alor hori gehiegi bultzatu. Alde batetik, ez genuelako uste garatu beharreko alderdi garrantzitsuena zenik, eta, bestetik, transmititu beharreko jarduera zehatzen katalogoa urria zelako une horretan.

Hala ere, hasierako errondan parte-hartzaileen beste motibazio eta jakin-min batzuei ere erreparatu genien. "Ez dagoen edo ezkutuan dagoen problematika bat erakusteko" desira behin eta berriz agertu zen eta, bitxiki, arazoak kezkatzen zituela baieztatu zuten zenbait ahotsekin batera bizi izan zen, baina "horrelakorik hemen gertatzen ez dela" pentsatzen zuten. Oro har, emakumezko ikasleek jasaten zituzten indarkeria sexualenganako ardura zuten irakasleek eta, AZPk, berriz, unibertsitateko langileen arteko indarkeria sexuarekiko (jazarpenarekiko, bereziki) interesa adierazi zuen. Irakasleen aldetik ikasleei zuzendutako indarkeria moduen inguruko kezka hasieratik agertu zen, baina intentsitate baxuagoarekin. Interes-maila hori, jakina, aldatu egin zen talde batzuetatik besteetara.

Formakuntzaren inguruko zenbait hausnarketa

Kontrolpean dagoen espazio segurua proposatzen du Rovira i Virgili Unibertsitateko USVreacteko lankideekin batera egindako ereduak; unibertsitate eremuan indarkeria sexuak erdiesten dituzten itxura zehatzen inguruko eztabaidari ekiteko aukera eskaintzen du. Hala, kasu zehatz baten aurrean eman beharreko lehen erantzuna edo, beharrezkoa izango balitz, erabili beharreko baliabideak bigarren mailako gaiak izan ziren. Bistan denez, elementu horietan arreta jarri genuen, baina beste elementu batzuen inguruan hausnarketa zabala egin ostean; esaterako, indarkeria ahalbidetzen duten egiturazko sistemei kritika egitearekin bat, askotariko indarkeria moten zein erasoen biktimizazio eta patologizazioa gaindituko duten dinamiken analisi sakona egin genuen, aldetaren fokua eta erantzukizuna unibertsitate-komunitate osoaren gain jarriko duena. Hori horrela, besteak beste, patriarkatua, arrazismoan eta klasismoan oinarritzen diren botere egiturak ikustarazteko ahalegina egin dugu, unibertsitatearen baitan jazotzen diren indarkeriek egiturazko sare horren barruan kokatu eta ulertze aldera.

Alabaina, geroz eta burokratizatuago eta biktimen arreta indibidualean zentratuago dauden testuinguruaren aurrean gaude. Gatazken kudeaketa ereduak bideratzen diren politiken kultura sustatzen dute testuinguru horiek eta nekez kuestionatzen dituzte, modu sakonean, horietan eragiten duten arazoak; aipatutako hori kudeaketa eraginkortzat jotzen da oso maiz. Epe ertain-luzerako begiradak erakusten digu ia inoiz ez dela hala izaten. Uste dugu arazoi hori medio jaso genituela erantzun zehatzetan, jarraibideetan eta prozeduretan gehiago sakontzeko iradokizun eta eskaerak, nahiz eta gure proposamenak harrera ona izan zuen orokorrean eta parte-hartzaile askok eskertu egin zuten hausnarketa ireki eta erradikala gauzatzeko espazio hori egotea. Izan ere, entzute aktiboaren eta lehen arretaren kompetentziei eskainitako blokeak izan zuen ebaluaziorik onena. Indarkeria sexual kasu baten aurrean zer egin ez jakiteak deseroso eta ikaratuta sentiarazten dituztela onartu zuten parte-hartzaile askok; hori dela eta, formakuntzaren bitartez behar hori asetzea nahi zuten. Ulergarria bada ere, formulen bilaketak agerian uzten du indarkeria sexualak banan-banan kudeatu daitezkeen auzi gisa ulertzen direla oraindik orain. Joera horren jatorria instituzio unibertsitarioek beraien oinarriak kudeatzeko duten zailtasunean dagoela deritzogu.

Gure planteamenduen aurrean hainbat erresistentzia elementu hauteman ditugu formakuntzan parte hartu duten pertsonen artean; indarkeriak indibidualizatzeko eta patologizatzeko joerarekin lotura izan dezake horrek. Hertsaduraz gauzatutako indarkeria sexual fisikotik (bortxaketa) haratago, indarkeria mota ezberdinak identifikatzeko joera positiboa antzeman genuen indarkeria mota ezberdinak identifikatzeko egindako jardueretan. Parte-hartzaile gehienek hautatu zuten indarkeria mota ezberdinen berri eman dezakeen ulermen ereduak, ikusgarrienak edo agerikoenak diren mugatu beharrean. Dena den, erresistentzia gehienak eremu teorikoan eman zituzten aditzera, indarkeria ahalbidetzen duten botere-harremanen analisi metodo gisa begirada feminista interseksionala ezartzerako orduan. Bi modutan adierazten zituzten erresistentzia horiek: erlatibizazioaren bitartez ("emakume batek ere abusatu dezake gizonezko batez") edo indibidualizazioaren bitartez ("pertsona nor den, desberdina da"). Marko interseksionala ulertzeko zailtasunekin egin dugu topo; botere-ardatz ezberdinen arteko harremanak baztertzailatzat ("momentu horretan ez da emakumea, bekaduna baizik") edo hierarkizatutzat ("generoak baino pisu gehiago du aukera sexualak") jotzen ziren maiz.

ĒKARPENAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

USVreact proiektuaren helburuak hasieratik izan dira praktika onak identifikatzea, ikastea eta indarkeria sexuarekin loturiko egoerak hobetzen saiatzea, gure unibertsitatean zein beste batzuetan.

Horri dagokionez, eraldaketa soziala eta balioen aldaketa bilatzen duten ikerketa eta esku-hartze moduekiko konpromisoaren bitartez, proiektuaren asmoari hainbat modutan lagundu diogu. Alde batetik, xede hezigarria erdietsi dugu, ezaugarri desberdinak dituzten pertsona kopuru handi bati hausnarketarako espazio kritikoa eskaini diogu-eta. Proiektuaren izaerak eraginda, parte-hartzaileen artean ozta-ozta egon dira ikasleak eta hori da, dudarik gabe, etorkizunean landu nahiko genukeen elementuetako bat. Ezinbestekoa iruditzen zaigu, hain zuzen ere, ikaslea biktima posible gisa eta irakasleria zein AZP laguntzaile posible gisa kokatzen dituen ikuspegia gainditzea. Errealitatea askoz ere konplexuagoa da; hala islatzen dute gure inkestaren emaitzek, formakuntza saioetan jasotako ebidentziek eta berriki jakitera eman diren hainbat kasu. Hori dela eta, behar-beharrezkotzat jotzen dugu ikasleria, aldaketarako agente legez ez ezik, indarkeria sexualen aurrean lehen erantzuna eman dezakeen subjektu bezala ere ikustea.

Bestalde, gure formakuntza apustua ez da eskaini ditugun saioetara mugatzen. Aurrez adierazi dugun moduan, formakuntza-gida bat sortu dugu URVrekin elkarlanean, non materialak eskaintzen diren eta bi unibertsitateetan diseinatu eta garatu ditugun dinamiken berri ematen dugun. Proiektuaren web orrian eskuratu daitezke gida eta materialak -Creative Commons lizentziarekin-. Halaber, EHUren formakuntza ereduaren soilik zentratzen den gida euskaraz argitaratu dugu. Bi unibertsitateen argitaratze-zerbitzuek batera argitaratuko dituzte paperean bi argitalpenak.

Amaitzeko, unibertsitate barruko zein kanpoko agenteekin elkarlana ezartzeko aukera eskaini digu proiektuak. Bi bidetatik abiatu dira lotura horiek: alde batetik, proiektua aurkezteko eta lehen bertsioa egiaztatzeko guk geuk deitu genituen bilerak; bestetik, EHUren genero indarkerien aurkako protokoloa berregiteko prozesuan partaidetza, egun martxan dagoen prozesua. Berdintasunerako Zuzendaritzak sustatuta, lan-talde batean parte hartzen dugu 2017.urteko ekainaz geroztik; bertako partaide dira unibertsitateko irakasleak eta ZAP, sindikatu- eta agenteak eta ikuspegi feministatik lan egiten duten unibertsitate barruko zein kanpoko talde eta ekimenak. Entzute- prozesu bat egin du taldeak dagoeneko eta 300 pertsona inguruk parte hartu dute (ikasleak, irakasleak eta ZAP). Informazioa bildu ostean, testua eta estrategiak sortzeko lanean ari da momentu honetan, EHU osatzen duten agente eta kolektiboekin batera protokoloa eratze aldera.

Gomendioak

Unibertsitateko indarkeria sexualen ikuspegi instituzionala aldatzea ezinbestekoa da. Egun gailentzen den paradigman ikaslea da arazoa duena eta instituzioa da hura kudeatzen duena (berriazko egituren edo bere pertsonalaren bitartez); eredu horretatik fenomenoak modu irekiagoan behatuko duen ikuspegi batera pasatu behar gara. Horrek eskatzen du indarkeria mota desberdinekin eta horietan jarduten duten egiturazko elementuekin (generoa, sexualitatea, klasea, arraza...) bat, unibertsitate-egitura zein bere hierarkia gure inguruko elementu berezi gisa kontuan izatea.

Era berean, beharrezkoa da ikuspegi asistentzial batetik prozedura ireki eta parte-hartzaileetan oinarritutako ikuspegira igarotzea, unibertsitate barruko zenbait sektore eztabaidatze eta ahalduzko dinamikan nahasiko dituen. Seguruenik, unibertsitate instituzioak eta bere egiturak zalantzan jarriko dituzte horrelako hurbilketek; ez da eztabaida horietatik ihes egin behar, aitzitik, horietan sakondu behar dugu, izan ditzaketen kontraesanak onartuta.

Agerikoa da hierarkizatuta ez dauden elkarguneak falta direla unibertsitate komunitatea osatzen duten sektoreen artean. Horiei bide emateari ekin behar diogu. Hala ere, garrantzitsua da entzute- prozesuak eta indarkeria sexualeri buruzko kexen sarguneak ezartzea; sargune horiek kontuan izango dituzte unibertsitateko pertsona eta talde desberdinen ezaugarriak. Gure

bizipenen inguruan hitz egiteko espazio seguruak behar ditugu eta nahitaezkoa da ulertzea espazio horiek aldatu egiten direla pertsona batzuetatik besteetara: emakumeentzat, LGTBIQ pertsonentzat... espazio seguruak beharko dira, baita elkarguneak ere. Hala, aintzat hartu behar ditugu unibertsitatearen baitako hierarkiak eta, entzute-guneak eta kexak tramitatzeko bideen inguruan hausnartu eta proposatzerako orduan, hierarkia horiek izan dezaketen eragina kontuan izan beharko dugu.

Entzute-guneetan indarkeria sexualak segurtasunez eta lasaitasunez kontatu ahal izateko, ezinbestekoa da unibertsitateetako burokrazia-espazioak desegituratzea eta gune berriak eraikitzea, ikasleek eta irakasleek/AZP beraienak ez diren eta eraginkortasun gutxi duten espazio urrun (izan ere, hala hautematen dituzte, guk egindako inkestaren emaitzen eta protokolorako egindako entzute prozesuaren ondorioen arabera) gisa senti ez ditzaten. Hala ere, ezagutu daitekeen arreta zirkuitu koordinatu baten parte izan behar dira entzute-gune zein sarbide horiek; gaur gaurkoz existitzen ez den datu bilketari bide eman behar dio.

Indarkeria sexualen arreta prozesuak ezin dira salaketa formalean ardatzu. Kexa formalarekiko eta bere egiaztapen prozedurekiko obsesio horrek indarkerien ikuspegi juridikoan du jatorria; arreta zirkuituak eraginkorrak izatea eta biktimizazio sekundarioan ez erortzea galarazten du. Kexa eta salaketa formala bereiztea formula egokia izan daiteke; horrela ziurtatu dezakegu pertsona guztiei arreta eskaintzen diegula entzute-gune batera kexa batekin joate hutsagatik. Era horretan, salaketa aukera bezala ageri da, ez arreta neurriak martxan jartzeko baldintza moduan.

Eskuragai dauden baliabideek, nola arreta baliabideek hala prebentzio baliabideek, aurrekontu egokia izan beharko lukete. Gainera, oinarrizkoa da baliabide horiekin lan egiten duten pertsonen prestakuntza egokia eta ikuskapen zein koordinazio zuzena izatea. Desbideratze arduratsua bermatze aldera, premiazkoa da unibertsitateetik kanpo gai hori modu instituzional edo aktibistan lantzen duten agente eta taldeen eta unibertsitatearen arteko koordinazio-guneak ezartzea: emakumeen etxeak, arreta zentroak, kolektibo feministak, ahalduntze eta autodefentsa taldeak, besteak beste.

Horrelako prozesuak sostengatuko dituzten egiturazko elementuak sustatu behar dira. EHUko fakultateetako Berdintasunerako Zuzendaritza eta Berdintasunerako Batzordeak dira horren adibide. Nolanahi ere, horrelako batzordeek aurrekontua ez ezik, erabakitze eta esku-hartzeko gaitasuna ere behar dute.

Jarduera protokoloei eta beste zenbait erregulazio neurriei dagokionez, ezinbestekotzat jotzen dugu indarkeria kasuen kudeaketa ereduak gainditzea. Hortaz, ondorengo ezaugarriak konbinatzen dituzten ereduak igarotzearen alde egiten dugu: batetik, indarkeria egoerak bizi dituzten pertsonen behar bereziei erantzuteko premia eta, bestetik, eraldaketa sozialaren zein prozesu parte-hartzaileen sustapena. Ondorioz, prebentzio eta sentsibilizaziorako neurri eta aurrekontu zehatzak izan behar dituzte erregulazio testuek; ezin dute zigorrean eta zuzenbidean oinarritutako begirada jo jarduera elementu bakartzat. Protokoloak modu parte-hartzailean eta inplikazioarekin egitea da modu bakarra ziurtatzeko proposatutako neurriek zentzua dutela eta unibertsitate-komunitateko sektoreetan (ikasleak, irakaslea, ZAP, azpikontratutako pertsonala...) aplikagarriak direla. Azkenik, aldatzeko motibaziotik irten behar dira protokoloak, eta ez legeak derrigortzen gaituelako; aldaketarako tresnak izan behar dira.

Proiektuaren webgunea:
<http://usvreact.eu>

KONTAKTUA:

marta.luxan@ehu.eus

jokin.azpiazu@ehu.eus